

Ark. 7
KUTIS

BERGARAKO UDALA	
AYUNTAMIENTO DE BERGARA	
2015 AZA 25	
SARRERA ENTRADA	4286 IRTEERA SALIDA
ORDUA/HORA	

MOZIOA

Datorren aenduaren 3an, 2008an ireki eta 7 urte zabalik daramatzan 4/08 Sumarioaren baitan, Espainiako Entzutegi Nazionalean, beste epaiketa politiko bat gehiago hasiko da.

Bertan, 2016ko Martxora arte irautea aurreikusita dagoen epaiketan, beste 35 euskal hiritar epaituko dituzte; Batasuna, Euskal Herriko Alderdi Komunista (EHAK) edo ANVko militante gisa, ETA-ren aginduetara jardun izanaren akusaziopean.

Horien artean, Mikel Zubimendi, Mikel Garaiondo eta Aitor Arantzabal bergararrak ditugu. Garzon epailearen aginduz, atxilotuak eta kartzelaratuak izan ziren; bi urte luze ondoren eta fidantza bat ordainduz, behineko askatasunean atera ziren arte. Geroztik, gaur egun arte, astero epaitegian aurkeztu behar izan diraa eta estatu espainoletik ateratzea debekatua dute.

Fiskaltzak 10na urtetako kartzela zigorra eskatu du inputatu bakoitzarentzat.

Epaiketa hau, oinarri gabea eta injustua izateaz aparte, azken urteetan Euskal Herrian gero eta indar gehiago hartzen ari den konponbide politikoaren aldeko jarrera eta borondatea ezagututa, erabat anakronikoa da eta mespretxatu egiten ditu, norabide horretan egiten ari diren ahalegin guztiak.

Guzti hau kontutan hartuz, Bergarako Udaltzak, honako puntuak onartzea erabakitzen du:

- 1.- Mikel Zubimendi, Mikel Garaiondo eta Aitor Arantzabal, hiru bergararren aurka hasiko den epaiketa bertan behera utz dadila eskatzea.
- 2.- Beraien aurka hartutako neurri guztiak indargabetu daitezela eskatzea, beraien eskubide zibil eta politiko guztiak berreskura daitezen.
- 3.- Mozio honen berri ematea Bergarako herriari eta Espainiako Justizia Ministerioko dagokion organoei.

Bergaran, 2015eko azaroaren 12an

BERGARAKO LIBRE